

ZARAUZ



Zarauzko Musika Banda. Particpará esta tarde en el concierto-romería de Lege Zaharren enparantza.

BANDtzaldia, novedad esta tarde en la Euskal Astea

A partir de las 20.00 horas en Lege Zaharren Enparantza, con Zarauzko Musika Banda y AIKO taldea

:: DV

ZARAUZ. Lege Zaharren enparantza acogerá a partir de las 20.00 horas de es tarde el estreno en Zarauz de BANDtzaldia, un nuevo concepto de concierto-romería con bandas del País Vasco ideado por AIKO Taldea, un colectivo cultural integrado por músicos y maestros de danza. Un concierto que aúna música de AIKO Taldea para bailar y romería a la vez con la participación del público.

Sobre el escenario de Lege Zaharren enparantza, los intérpretes de la Banda de Música de Zarauz y los músicos y dantzaris de AIKO Taldea ofrecerán este concierto-romería, bajo la batuta de Iosu Isasti Agües, director de Zarauzko Musika Ban-

da. Este espectáculo al aire libre reunirá a más de 50 intérpretes, aunque si llueve, se trasladará al primer piso de Merkatu Plaza.

El programa elegido está integrado por un repertorio de música para bailar de más de 15 obras compuestas por Sabin Bikandi, fundador de AIKO y premio MAX 2015 a la mejor composición musical. El compositor de Barakaldo Joserra Gutiérrez se ha encargado de arreglar estos temas y amoldarlos a la estructura de una banda de música.

Así, al son de la música de Zarauzko Musika Banda, el público podrá participar de un concierto diferente, bailando pasodobles, jotas, jauziak, chotis, polka, mazurca, vals, ingurutxo, etc. Mientras la música suena, Patxi Laborda e Iruñe Arrizubieta, maestros de danza de AIKO, bailarían en la plaza, dinamizando un espectáculo abierto a la participación de todo el público. El único requisito, ganas para poder bailar.

AIKO Taldea es un colectivo cultural integrado por músicos y maes-

tros de danza que desde hace 11 años se dedica a difundir el amplio legado de la música y la danza tradicional y a recuperar el espíritu popular de las romerías, creando nuevos espacios para la danza e implicando a un colectivo cada vez más amplio. Su vocación es la de «tocar y bailar de forma natural, relajada y divertida», y transmitir esa pasión al máximo número posible de personas.

La Jodedera y Bide Batez

Para completar el programa musical de hoy, sábado, a partir de las 23.00 horas en el aparcamiento de Salberdin se anuncia al grupo andoaindarra La Jodedera, del que forma parte el conocido dominicano-zarauztarra Rafa Villafañe. «Pondremos ritmo e invitamos a todo el mundo que quiera pasar un buen rato para que se acerque hasta Salberdin», comenta Rafa.

Junto a la Jodedera, completará el programa el grupo Bide Batez, con Eneko Etxabe, Irati Odriozola, Maria Soriazu y David Etura.

Euskararen aldeko lasterketak zabalduko du gaurko egitaraua

:: DV

ZARAUZ. Atzo adierazi beza-la, Euskal Asteko egitaraua betebetea datorkigu. Gogoratu, gaur goizean, 10:30ean Musika Plazatik abiatuta, Euskararen aldeko XXIII lasterketa ospatuko dela, AEK eta EHEK antolatuta. Izenematea aurrez egin behar da, irteera puntu bertan.

Lasterketa motza da, edonork egiteko modukoa. Kontua parte hartzea da, kirol pixka bat egitea euskararen alde, izan ere sailkapenak ez dira gehiegi kontutan hartzen.

Jarraian, 11:30ean, Lege Zaharren enparantzan, auresku eta soinu zahar txapelketak izango dira. Aureskuan parte hartuko dutenak: Beñat Salegi (Errenteria), Beñat Asensio (Lezo), Luis Garcia (Errenteria) Aitor Martinez (Legazpi), Iker Sanz (Lezo), Gaizka Uranga (Elgoibar), Ander Garcia (Donostia), Iker Belintxon (Lezo) eta Asier Rios (Errenteria).

Bestalde, Zarauzko soinu zahar txapelketan: Izaro Telletxea (Oiartzun), Itxaso Lizeaga (Pasai Donibane), Ane Urruzola (Amasa-Villabona), Irati Olaizola (Legazpi), Katerin Artola (Oiartzun), Nerea Sasiain (Elgoibar) eta, Idoia Narbaiza (Legazpi).

Jarraian, 14:30ean Musika Plazan, ehunka lagun bilduko dira AEK eta EHE-ek antolatzen duten XXXIII bazkari herrikoian. Ondoren, 18:30ean, kalejira darrikatzailea egingo da.

Herriko taldeen jaialdia

Herriko taldeen Euskal Asteko jaialdia irailaren 5, asteartean izango da, 20:00etan Lege Zaharren enparantzan. 'Gerezi garaiak' izenburupean, Montetxio koruak, Alproja antzerki taldeak, Jalgi dantza taldeak, Goizeko Ihintza txistulari taldeak, Aratz Olaizola, Olatz Leturiaga, Mattin Ostolaza, Aitor Amilibia, Eneritz Aulestia eta Ainhoa Garayar, Arranoko salsa taldea, Motxian bertso eskolak, Jesus Mari Olaizola 'Txiliku' eta Mitxel Gorrotxategik hartuko dute parte.

EN BREVE



Maritxu eta Javier gaztetan.

Urrezko ezteiak

Gaur, larunbata, irailak 2, Javier Bravo eta Maritxu Urbietak urrezko ezteiak ospatzen dituzte, ezkondu zireneko 50 urte. Javier, oriotarra bera, 77 urte ditu, eta Maritxu, zarauztarra, 75. Familia giroan ospatuko dute eguna. Zorionak!

Viaje a Castilla y León

Se informa a los socios de Uda-berri inscritos al viaje a Castilla y León, que el martes, 5 de septiembre, se hará una reunión a las 11.00 de la mañana en el primer piso del Udaberri para explicar los detalles y entrega de documentos. Todavía quedan algunas plazas libres.

Biharko meza

Bihar, igandea, eguerdiko 12:30ean, Aita Frantziskotarren elizan, M^a Antonia Agote Muruaren (Goian bego), heriotzaren lehen urteurreneko meza ospatuko da.

Misa para hoy

La misa de hoy, sábado, a las 19.30 horas en la iglesia de Los Padres Franciscanos será en recuerdo de Ignacio del Canto (q.e.p.d), recientemente fallecido en Victoria.

Kurtsoa irailaren 11an hasten da
GABOTA DANTZA ESKOLA
Geltoki Bidea, 11. Zarauz - Tel. 943 133 716
5 urtetik aurrera / a partir de 5 años
Dantza Klasikoa / Danza Clásica
Helduak / Adultos
Gimnasia
Dantza Garaikidea / Contemporáneo
Ballet-a Hastapenak / Ballet Iniciación
Matrikulazioa: irailak 7 eta 8an 17:etatik 19:etara
Matriculación: 7 y 8 de septiembre, de 17:00 a 19:00 horas

SE NECESITA COCINERO/A EN ZARAUZ CON EXPERIENCIA
Enviar Curriculum con foto. Ref. 20171
- Aptdo. de correos 134. 20800 Zarauz
- e-mail: zarauzcocinero2017@hotmail.com

Haur dantzariak kalez kale biharko Haurren Euskal Jaian

:: DV

ZARAUZ. Biharko haurren Euskal Jaian ehunka haur eta gaztetxo elkartuko dira, egun eder bat igarotzeko asmoz. Ea eguraldiak pixka bat laguntzen duen. Alkate txikiak emango diete guztiei ongietorria goizeko 11:30ean Lege Zaharren Enparantzan (euria egiten badu, Gaztelekuan). Ondoren, dantza talde des-

berdinak kalez kale ibiliko dira; era berean, buruhandi eta erraldoiak trikitilariekin aterako dira. Arratsaldeko 17:30ean kalejira Musika Plazatik Iñurritzara eta bertan dantzarien bilkura egingo da; 18:30ean, Iñurritzan, 'Jalgi handi dantzara', haurrentzako berbena eta puzgariak izango dira, eta 20:00etan, itzulera kalejiran Musika Plazara.



Dantzari txikiak hartuko dituzte kaleak biharko egunean. :: ETXEBERRIA